

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	kodea: <i>código:</i>	015071
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	3. MAILA
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	GEOGRAFIA ETA HISTORIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>	GEOGRAFIA ETA HISTORIA		
diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Konpetentzia Sozial eta Zibikoa Arterako konpetentzia Matematikarako konpetentzia Hizkuntza eta literaturarako konpetentzia		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	M ^a JESUS GARATE MINTEGUI	ikasturtea: <i>curso:</i>	2022-2023

Zeharkako konpetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
--------------------------------------	---

1. Geografia eta Historia arloen garrantziaz jabetzea. Batetik, Geografia, ingurune hurbilaren ezagutzatik abiatuta errealitate konplexuetara. Bestetik, Historia arloaren balioa, osotasunean ulertuta. Hau da, ez bakarrik gertaeraren ezagutza hutsa modura, baizik eta, gaur egungo errealitatea ulertzeko eta azaltzeko elementuak aztertuz.

2. Parte-hartze aktiboa eta gainerako pertsonetikiko errespetuzkoa izatea, besteen iritziak era egokian entzunez eta norberaren akatsak zuzenduz, gelan elkarbizitza egokia sustatzeko eta, era berean, gizartea eraikitzen laguntzeko.

3. Ikasitako edukiei buruzko lexiko berezia menperatzea eta erabiltzea, definizioak landuz, informazio zehatza eta argia erabiltzeko eta era egokian ikasteko edota transmititzeko.

4. Erregimen demokratikoen jatorria, antolamendua, funtzionamendua eta horien ezaugarri eta oinarri diren printzipio nagusiak aztertzea, funtsezko balio demokratikoak aintzat hartuz eta herritarren eskubideei eta askatasunei erreparatu; helburua gizartean parte hartze arduratsua, kritikoa eta erabatekoa bultzatzea da, eta eskubiderik edo baliabiderik gabeko herri, talde sozial edo pertsonen aldeko jarrera sortzea.

5. Espainian eta Euskal Herrian antolaketa politikoa nola gauzatzen den aztertzea, sortzen diren gatazkei erreparatu, norberaren bizitzako eta gizarte-bizitzako ekintzei eta egoerei buruzko iritziak sortzeko, eta gizarte demokratikoetan modu arduratsu eta kritikoa parte hartzeko.

6. Europako erakundeak eta haien

1. Geografia eta Historiarekiko interesa eta jakingura erakustea eta bi zientzia horiek mundua ulertzeko orduan duten garrantzia balioestea.

2. Eztabaidetan parte hartzea, horretarako, iritzi arrazoituak garatzea, Gizarte Zientzietan oinarritutako arrazoiak emanik, gainerako iritziak errespetatzea eta ondorio komunak lortzen saiatzea.

3. Gizarte Zientzietan dagokien lexikoa ulertu eta erabiltzea.

4. Demokrasiaren printzipioak ezagutu eta ulertzea; erregimen demokratiko eta autoritarioak bereiztea, ezaugarriak, injustiziak, giza eskubide urraketak identifikatuz eta parte hartzeko eta gizarte bizitza hobetzeko neurriak proposatuz.

5. Espainiako eta Euskal Herriko antolaketa politikoaren ezaugarri nagusiak ezagutzea, sortzen diren interes gatazkek identifikatuz, iritzi ezberdinak ulertuz eta herritarren parte hartzeko bideak bereiztuz.

6. Europako erakundeen funtzio eta helburuak bereiztea, gabeziak identifikatzea eta hobetzeko proposamenak egitea.

7. Ekonomiaren ezaugarri eta eragile nagusiak ezagutzea, funtzioak, loturak eta menpekotasuna identifikatzea eta hurbileko zenbait arazo ekonomiko aztertzea, eragiten dituzten ingurumen-arazo eta ondorio sozialei erreparatu.

8. Munduko eta inguruko nekazaritza paisaiak bereiztea eta ezagutzea, baliabideen erabilerak eragiten dituen ingurumen eta gizarte ondorioak balioetsiz.

<p>antolaketa politikoa eta administratiboa ezagutzea, erronka nagusiak aztertuz, Europar Batasuna Europako herrien eta nazioen harreman- eta partaidetza-esparrua dela ulertzeko eta hobetu beharraz jabetzeko.</p> <p>7. Ekonomiaren ezaugarri, eragile eta ekonomia-erakunde nagusiak ezagutzea, eginkizunari eta elkarrekiko mendekotasun hazkorrari erreparatuz, eta ezagutza hori hurbileko zenbait arazo ekonomiko aztertzeke erabiltzea, ekonomiak gizakion bizitza nola baldintzatzen duen ulertu eta gizakiaren jarduerak zer gizarte-arazo eta ingurumen-arazo sortzen dituzten ulertzeko.</p> <p>8. Nekazaritzaren oinarrizko elementuak ezagutzea eta aztertzea, munduko nekazal paisaia ezberdinak kokatuz eta ingurukoak analizatuz (Euskal Herria, Espainia eta Europar Batasuna), giza taldeek espazioa eta hango baliabideak nola erabiltzen dituzten ulertzeko eta erabilera horiek eragindako ondorio ekonomiko eta ingurumenaren arlokoak balioesteko.</p> <p>9. Industria jardueraren oinarrizko elementuak ezagutzea, Euskal Herriko, Espainiako eta Europar Batasuneko industria-gune nagusiak kokatuz eta aztertuz, industriaren bilakaera ulertzeko eta jarduera honen arazo eta ondorioak baloratzeko.</p> <p>10. Hirugarren sektorearen jarduera ezberdinen ezaugarriak ezagutzea, zerbitzu mota ezberdinak aztertuz, tertziarizazio prozesuaren garrantzia gaur egun ulertu ahal izateko.</p> <p>11. Munduko ezberdintasun ekonomikoak ezagutzea, eremu geoekonomiko ezberdinak aztertuz eta konparatuz, adierazle</p>	<p>9. Industria sektorearen ezaugarri eta mota nagusiak bereiztea eta Europako eta inguruko industria-gune nagusiak ezagutzea, jarduera honek eragiten dituen ondorioak balioetsiz.</p> <p>10. Hirugarren sektoreak gaur egungo gizarteetan duen garrantzia eta ezaugarriak identifikatzea, zerbitzu motak sailkatzea eta tertziarizazioaren ondorio nagusiak azaltzea.</p> <p>11. Munduko eremu geoekonomiko nagusiak bereiztea, bakoitzaren ezaugarrinagusiak azalduz eta ezberdintasunak identifikatzea, adierazle sozioekonomikoak erabiliz. Halaber, ezberdintasun horiek murrizteko zenbait ekintza proposatzea eta elkartasun jarrera adieraztea.</p> <p>12. Informazio geografikoa lortzea eta egoki adieraztea (ahozkoa, grafikoa, ikono bidezkoa, estatistikoa, kartografikoa). Iturri ezberdinetatik lortutako informazio hori, laburbildu, eta ondorioak besteei modu antolatuan eta ulergarrian azaltzea.</p> <p>13. Aro Modernoko denbora lerroa irudikatzea, gertakizun nagusiak izendatuz.</p> <p>14. Iturri mota ezberdinak aztertu eta alderatzea, Aro Modernoko gertakizun garrantzitsuak eta horien ezaugarriak ezagutzeko:</p> <p>14.1. Estatu modernoaren sorreran izandako une garrantzitsuenak bereiztea.</p> <p>14.2. Estatu modernoak eta monarkia autoritarioek arlo guztietan (politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala) izandako garapena eta erabateko finkatzea ezagutu eta aztertzea.</p> <p>15. Aro Modernoan Euskal Herrian eta Espainian emandako gertaera historikoak</p>
---	---

sozioekonomiko nagusiak erabiliz eta kontuan hartzen dituzten elementuei erreparatu, iritzi kritikoa garatzeko eta ikuspegi arrazoitua izateko. Halaber, ekintza eraginkorrak sustatzea eta proposatzea ezberdintasun horiek murrizteko.

12. Informazio geografikoa lortzea eta egoki adieraztea, ahozko informazioa, informazio grafikoa, ikono bidezkoa, estatistikoa eta kartografikoa eskuratu, planifikatu, aukeratu eta erlazionatu. Informazioa hainbat iturritatik lortuko dute (komunikabideak eta IKT-k barne), informazio hori laburbildu eta ondorioak besteei modu antolatuan eta ulergarrian azaltzeko.

13. Denbora markatzeko unitateak eta kategoriak erabiltzea. Denbora lerroak irudikatuz, aro historiko bakoitzaren iraupenaz jabetzea, hasiera eta amaieraren arrazoi nagusiak jakinda, gertakizun nagusiek zergatik ematen diotenaldi bakoitzari hasiera eta amaiera jakinez.

14. Iturri mota ezberdinak aztertuz eta alderatuz, Aro Modernoko aldaketa ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak jakitea, emandako aurrerapen esanguratsuenak ezagutzeko eta gaur egunera arte izandako bilakaera ulertzeko.

15. Aro Modernoan Euskal Herriak eta Espainiak izandako gertaera historikoen prozesuak ezagutzea eta denboran eta espazioan kokatzea, ezaugarri orokorrak gure lurraldean nola gauzatu ziren konparatu eta aztertuz, Europako historiaren testuinguruan kokatzeko.

16. Iturri ikonografikoak aztertuz, Aro Modernoko estilo artistikoen ezaugarri nagusiak jakitea Historian izandako

ezagutzea.

15.1. Monarkia hispanikoaren eta Espainiako inperio kolonialaren ezaugarri nagusiak adieraztea aldi horretako testuinguru europarraren barruan.

15.2. Aro Modernoan zehar Euskal lurraldeen bilakaera politiko, ekonomiko eta soziala ezagutzea.

16. Aro Modernoko estilo artistiko nagusien oinarriko ezaugarriak identifikatzea, sortu ziren garaiaren testuinguruan barneratu, eta ezagutza hori garai horietako artelan garrantzitsu eta adierazgarrienetako batzuen azterketan aplikatzea. Baita ondare kultural eta artistikoa balioetsi eta errespetatzea ere.

17. Iturri ezberdinak aztertuz, gertakizun historikoen arrazoi eta ondorioak ezberdintzea eta gertakarien kausa anitzez jabetzea.

18. Emakumeek historiaren bilakaeran egindako ekarpena aintzat hartzea.

19. Oinarriko testu historikoak aztertzea.

20. Irakurketak edukien barneratzean nola lagun dezakeen ulertzea eta bere garrantzia balioestea.

21. Iturri ezberdinak erabiliz informazio egokia biltzea, banaka zein taldeka lan errazak egiteko eta lan horiek, idatziz edota ahoz defendatzea.

adierazpen artistikoak baloratzeko eta gaur egun daudenekin alderatzeko.

17. Iturri ezberdinak aztertuz, gertakizun historikoen arrazoi eta ondorioak identifikatzea elkarren arteko loturaz jabetzeko eta gertaera historikoetan parte duten zergatiak anitzak direla ikusteko, topikoak apurtzeko asmoz, aniztasunaren balioaz jabetzeko.

18. Iturri ezberdinak erabiliz, emakumearen presentzia Historian nolakoa izan den aztertzea, gaur egungo egoerarekin alderatzeko eta honetaz iritzi arrazoitua finkatzeko.

19. Testu historikoak landuz, ideia orokorrak identifikatzea, adierazpena eta ulermena finkatzeko.

20. Irakurketa landuz, ulermena lantzea geografia eta historiako aspektu ezberdinekin lotura aurkitzeko eta irakurzaletasuna bultzatzeko.

21. Gai jakin baten aurrean, informazioa bildu eta moldatu ondoren, ikaslearen iritzia finkatzea eta ahoz eta idatziz defendatzea, bai bakarka bai taldeka, autonomia pertsonala eta lankidetzaren indartzea.

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

--

● 1. arazo egoera: “Jarduera Ekonomikoen katalogoa”

Pertsonak beharrak eta desirak ditugu, eta jarduera ekonomikoek erantzuna ematen diete horiei. Jarduera ekonomikoek sistema bat osatzen dute, eta sistema horretako elementu guztiak erlazionaturik daude.

TESTUINGURUA:

Ikastetxeko zuzendaritzak liburutegiko eskaintza osagarri gisa, sektore ekonomiko ezberdinen eta horiek osatzen dituzten jarduera ekonomikoen gainean online eta sarean ikusgai izango den web orri edo wiki bat osatzea.

ARAZOA:

Liburutegian ekonomia jardueren gaineko informazio eguneraturik ez dago, eta ikasleek ez dute behar beste informazio gaiaren gainean.

XEDEA/HELBURUA:

Horrela bada, ikasleek, taldeka, jarduera ekonomiko ezberdinen gaineko informazioa jaso eta gure herrian horien egoera nolakoa den azaldu beharko dute. Ikasleek ekonomia arloaren garrantzian eta ezagutzan sakontzea bilatzen da.

● 2. arazo egoera “AHT Euskadin....Beharrezkoa da?”

Trenbide bidezko garraioa funtsezko garraiobide bat da hiri handietan. Azken urteotan, garrantzia hartu du distantzia ertaineko garraiorako, abiadura handiko trenen garapenak.

Trenbide bidezko garraioa azkarragoa, merkeagoa eta seguruagoa da errepede bidezko garraioa baino, eta, horretaz gainera, gutxiago kutsatzen du. Ikasleek gure gizartean puri-purian den gai bati buruz bere iritzia defendatuko dute argudioen bidez.

TESTUINGURUA:

Abiadura handiko Trenaren eraikuntza gure gizartean gaurkotasun handiko gaia da, baina ikasleek badute arazo horren berri? Ala bada zer dakite honi buruz?

ARAZOA:

Euskal gizartean azken urte hauetan eztabaida handia sortu duen auzia da.

XEDEA/HELBURUA:

Euskal gizartearen zatiketa iritzi kritikoz aztertzea eta ondorioztatzea.

● **3. arazo egoera / “Amerika eta euskaldunak”.**

Euskaldunen garrantzia aztertu dugu garai horretan, Euskaldun ugariak parte hartu zuen Mundu Berriarekin ezarritako merkataritza-ibilbide berrietan. Zergatik?

TESTUINGURUA

Euskaldunak eta Amerika; Durangaldeako etxe- jauregi batetik hasita, Euskaldunek eragina Mundu Berriarekin ezarritako merkataritza-ibilbide berrietan aztertuko dugu

ARAZOA

Zergatik dago horrenbeste abizen euskaldun Amerikatako aurkikuntza eta kolonizazioarekin lotuta?

XEDEA/HELBURUA

Aro modernoan euskaldunek izandako prozesu global honetan izandako eragina ezagutzea eta horren berri ematea

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

Ord 31	1. ebaluazioa.	Ord 37	2. ebaluazioa.	Ord 29	3. ebaluazioa.
4	Zer da Geografia: Geografiako tresnak	6	Bigarren sektorea: Meatzaritza, energia eta eraikuntza	3	Aro modernoa: Aro berriaren sorrera. Denboraren nozioa
9	Gizartearen antolamendu politikoa. Estatuak	8	Bigarren sektorea: industria	8	Geografia-aurkikuntza handien garaia

9	Gizarteen ekonomikoa	antolaketa	12	Hirugarren sektorea: Zerbitzuak, garraioak eta turismoa komunikazioa eta berrikuntza	6	Espaniar inperioa: Monarkia Hispanikoa eta Austriak etxea
9	Lehen sektorea: Nekazaritza abeltzaintza eta basogintza		7	Mundu Globalizatua, transformazioak: merkataritza jarduerak eta truke-fluxuak	8	Errenazimendua
					6	Erljio gatazkak: Erreforma eta kontrarreforma

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Oinarri psikopedagogiko eta didaktikoak:

- Gaiaren arabera egokienak diren metodoak erabiliko dira: azalpenak (aurkezpenak erabiliz), bakarka egindako lana eta ikerketak, talde lanak, eztabaidak...
- Ulermenean oinarritutako irakaskuntza bultzatuko da. Lan jarraitua egingo da, oroimen ulerkorra landuz eta funtzionalitatea bilatuz, hortaz, “egiten jakitea”, “jakite” hutsari gailenduko zaio.
- Unitate bakoitzeko edukiak lantzeko ikasleen aurretiko ideietatik abiatuko gara. Horrela ikasle bakoitzak bereak dituen eskemetan ezarriko du ikasketa berria, esperientzia pertsonalean oinarrituko du.
- Azalpenak ematerakoan, unitate ezberdinen edukien artean dauden loturak azpimarratuko dira, ikasleek edukien artean lotura sare aberats bat dagoela ikusteko.
- Ikaslea ardatz duten estrategia interaktiboak nagusituko dira, beste batzuen

artean, eztabaidak, simulazioak eta proiektuak planteatuko dira.

- Ikasketa prozesuan hiztegi berriari garrantzi handia emango zaio, gaiaren ezagutzarako eta hizkuntza gaitasunerako. Hori horrela, garrantzi berezia emango zaio euskarari eta ulermen eta adierazpenari, honen inguruko ekintza ezberdinak burutuz.
- Irakurketa: ulermena lantzeko ekintzak burutuko dira ikasturtean zehar. Testuen lanketa, testu laburpenak, testu iruzkin gidatuak, testuen gaineko eztabaidak...
- Eguneroko informazioari garrantzi berezia emango zaio, gertuko errealitatearen ezagutza abiapuntutzat hartuko dugu, espazioan urrunago dauden beste errealitate batzuk ulertzeko.
- Iturri eta euskarri ezberdinetako informazioaren erabilera eta kudeaketa egokia sustatuko dira.
- Berdintasunean oinarritutako lan-giroa sustatuko da, diskriminaziozko edozein jokabide baztertuko delarik. Horrez gain, unitate didaktikoetan emakumeek egindako ekarpen sozial eta historikoak integratuko dira.

Jarduerak:

Jarduera mota ezberdinak proposatuko dira:

- Motibazio-jarduerak, edukien gaineko ikaslearen aurre-ezagutzak jaso eta jakin-mina pizteko ariketa edo gogoetak.
- Garapen-jarduerak, edukien barneratzea lagunduko dutenak (mapak eta grafikoak aztertzea, testu iruzkin laburrak egitea, idazlan laburrak egitea, artelan ezberdinak aztertzea, eztabaidak...).
- Finkatze-jarduerak, informazio berria, ikasleak aurretiaz duen ezagutzarekin lotu eta ikasitakoa praktikan jartzeko (oraina eta iragana lotzeko ariketak...).
- Sintesi-jarduerak, eduki ezberdinen arteko lotura ezartzeko (mapa kontzeptualak, laburpen-taulak eta eskemak egitea...).
- Errefortzu-jarduerak, ikasketa-erritmo motelagoa duten ikasleentzat, hauen gaitasunen garapena errazteko balioko dutenak.
- Zabaltze-jarduerak, garapen-jarduerak zuzen burutu ostean, ikasketa-erritmo azkarragoa edo interes berezia duten ikasleei, ezagutzetan eta aplikazioan zabaltzeko edo sakontzeko aukera ematen dietena

Baliabide didaktikoak:

- Testu liburua :Geografia eta Historia 3, SANTILLANA ZUBIA eta editorialak eskainitako materiala. Testuliburua ikaslearentzat oinarri moduan erabiliko da, beste material batzuekin osatzeko.
- Egunkari eta aldizkariak.
- Atlas, datu estatistiko, mapa historiko, grafiko, testu, irudi eta artelanak.
- IKT (Google apps, webgunetako konexioak, dokumental, bideo laburrak...).
- CLASSROONEN BIDEZ, ikasteko GIDOIA izango dute eta material osagarriak: testuak lantzeko, errefortzuzko ariketak...

Espazioaren antolamendua eta taldekatzeak:

Lan batzuk ,bi edo lau ikasleen artean egin ahal dute Driven bitartez eta ondoren ahozko aukezpenak gela aurrean aurkeztuko dira.

Banakako lana eta gero aurkezpena. Euskararen erabilera baloratuko da.

Denboraren antolamendua:

Orokorrean, beste modu batzuk baztertu gabe, ikasturtean zehar lortutako emaitza eta unitate bakoitzaren berariazko ezaugarrien arabera, saio bakoitzean, hurrengo denborazko sekuentzia jarraituko da:

1. Aurreko saioan landutako edukiak gogoratu eta hastear dugun saioarekin lotu.
2. Hasierako galderak, ikasleen aurre ezagutzak ikusi eta baita ikasleak motibatzen eta gaiari sartzeko.
3. Azalpenak eta jarduerak (azalpen orokorrak gaiarekin loturiko eduki eta kontzeptu nagusiak azalduz, gaia finkatzeko ariketa laburrak, ondorioen alderatzea, zalantzak argitu, laburbildu).
4. Saioaren itxiera: Garrantzitsuena azpimarratu eta behar denean, hurrengo saiorako egin beharrekoak esan.

Irakasleen eta ikasleen eginkizuna:

Metodologia aktiboa eta parte hartzailea erabiliko da. Ikasleek ikasteko eta lan egiteko trebetasun autonomoa lortu behar dute.

Irakaslea: ezagutzaren eta ikaslearen arteko bitartekaria izango da. Ikasten laguntzen duten egoera didaktikoak sortuz eta ikasleei ideiak adierazten eta ezagutzak egituratzen lagunduz.

Ikaslea: ikasle bakoitza bere ikasketa prozesuaren protagonista izango da. Hori horrela, ikaslea ardatz izango duten estrategiak erabiliko dira, ikertu, erlazionatu, ondorioak atera eta abar ikasleak berak egin beharko dituelarik. Horretarako, komunikazioa, partaidetza eta norberaren ekimena sustatuko dira.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p>
<p>- Proba idatziak: ebaluazio bakoitzean, gutxienez bi proba izango dira. Edukien sakontasuna eta egokitasuna, hizkuntzaren erabilera egokia, klasean landutako hiztegi tekniko eta edukiak aurkezteko eta edukiak aurkezteko egitura eta loturak balioetsiko dira.</p> <p>- Eguneroko lanaren behaketa: kontuan izango dira interesa, esfortzua, klaseko</p>	<p>KALIFIKAZIO SISTEMA:</p> <p>FROGA IDATZIAK: 7/10 puntu (notaren % 70a): azterketak, testak...</p> <p>Atal honetan gutxienez 4/10 lortu beharko da beste atalekin ebaluazioaren batez bestekoa egiteko.</p> <p>Azterketa egunetan ikasleak ez badira aurkezten gurasoek justifikatu behar dute.</p>

jarrera egokia eta errespetuzkoa (bai ikasgaiarekiko, irakaslearekiko, zein ikaskideekiko), lan ohiturak, parte hartzea, ekarpenak egitea, puntualtasuna eta materiala ekartzea.

- **Lan koaderno**a: antolaketa, osotasuna, jarduerak egin eta zuzendu diren, aurkezpena eta txukuntasuna baloratuko dira. Koaderno eguneratuta izatea baloratuko da.

- **Banakako eta talde lanak (Drivetik)**: jarraibideak betetzea, hiztegi egokia erabiltzea, zuzentasuna eta egokitasuna, originaltasuna eta aurkezpen aproposa baloratuko dira. Lanak epean entregatu behar dira.

-**Euskararen erabilera ebaluazio bakoitzean baloratuko da:**

- **1.ebaluazioan:** ikasleek irakasleoi euskaraz erantzutea eta irakasleenganaz euskaraz zuzentzea gelan zein gelatik kanpo .
- **2.ebaluazioan** :ikasleen artean euskaraz egitea gelan parte hartzerakoan: iritziak ematerakoan, lanak aurkezterakoan eta irakaslea elkarriketaren parte denean
- **3.ebaluazioan:** ikasleen artean euskaraz egitea gelan, taldeka daudenean baita irakaslea taldetik kanpoan dagoenean ere.

EGOKITZAPENAK:

Ikasleen berezitasunen arabera (Curriculumaren Norbanako Egokitzapenak, atzerritik etorri berriak diren ikasleak, etab.) proba idatziak ez dira guztiz berdinak izango, beharren arabera egokitutakoak izango dira.

LANA: 2/10 puntu (notaren %20a).

Koaderno, etxerako lanaren inguruko behaketak, ahoz zein idatzizko azalpenak , bakarka edo taldeka egindako txostenak, classroonetik egindako lana. Ariketa guztiak eguneratuta eta zuzenduta egon behar dira.

JARRERA: 1/ 10 puntu (notaren %10a)

- Klasean adi egotea eta jarrera parte hartzailea.
- Gaiekiko interesa, puntualitatea
- Materiala ekartzea.
- Ikaskideak eta irakasleak errespetatzea, baita irizi desberdinaz.
- Euskararen erabilera ikasleen artean, irakaslearenganaz zuzentzerakoan, lanak aurkezterakoan .

-Ebaluaketa berreskuratzeko gaintu gabeko atala baino ez dute egin beharko. Bi azterketa edo proba idatzi gaintu gabe egotean ebaluaketa gaintu gabe geldituko da.

-Ebaluazioa gaintu ahal izateko ezinbestekoa da froga idatzietan gutxienez 4 /10 puntu izatea. Kasu horretan bakarrik egingo da hiru atalen batura (froga idatziak , lana eta jarrera)

- Epez kanpo EZ da lanik jasoko.

- Proba edota lanetan kopiatzen harrapatuz gero, proba edo lan hori ez da zuzenduko, bere kalifikazioa 0 izango delarik.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

ERREKUPERAZIO SISTEMA:

Ebaluazio bat edo gehiago suspendituz gero, ikasleak bi aukera izango ditu berreskuratzeke:

1. Ebaluazioetako berreskurapenak: ebaluazioa pasa ostean proba bat egingo da. Proba hori prestatzeko ikasleak material berezia izango du, irakasleak prestatutakoa (edukiak indartzeko jardueraz osatutako txostena). Kalifikazio irizpideak, ebaluaketan zehar erabilitakoak izango dira.

2. KURTZO AMAIERAKO NOTA

*Oharrak:

- Berreskurapeneko nota ezin izango da 5 baino altuagoa izan.
- Ikasturtean zehar ebaluaketaren bat gainditu gabe duten ikasleek laguntza berezia jasoko dute, pendiente dutena gainditzeko (materiala, irakaslearen laguntza...)

AURREKO URTEKO GAINDITU GABEAK:

HEDATZE PROIEKTUAREN BIDEZ Ikasturte batetik bestera oinarrizko helburuak lortzen ez dituzten ikasleek, ariketen txosten bat egin eta txosten horren inguruko proba gainditu beharko dute. Horretarako, ikasleek irakasleak antolatutako materiala izango dute. Lanaren jarraipena egokia izan dadin, txostena bi ataletan banatuko zaie. Txostena entregatzeko eta proba egiteko datak ikasleekin adostuko dira. Txostena egoki burutzea ezinbesteko baldintza da berreskuratze azterketa egiteko.

Inolaz ere, hurrengo kurtsoko ebaluaketak gainditzeak, ezta kurtsoa bera gainditzeak ere suposatuko du aurretik pendiente dagoen kurtsoaren gainditzea, ikasgaiak beti jarraiak ez diren edukiak lantzen baititu kurtсотik kurtSORa (aldi historiko ezberdinak, geografia... hau da, gizartearen zientzia ezberdinak). Horregatik, hala beharrez, ariketen txosten eta proba baten bidez izango du ikasleak aurreko kurtsoko edukiak gainditzeko aukera.

OHARRAK / OBSERVACIONES

IKASLEAK JARRERA DESEGOKIAK IZANEZ GERO Ikasleek, ikasgai honetan jokabide desegokiak izateak, berezko ondorioak izateaz gain, ikasgai honekin lotutako jarduera osagarrietan parte hartzeko aukeran ere ondorioak izango ditu.

Gauzak horrela, jarduera osagarriaren dataren aurretik, ikasle batek jokabide desegokiak izanez gero, irakasleak erabaki ahalko du, jarduera osagarriaren arabera, ikasle horrek jardueran parte hartu ahalko duen, edota ikastetxean bertan garatuko dituen konpetentzia horiek.

HEZKIDETZA

Hezkidetza Proiektua ikastetxean gauzatzen ari dela kontutan harturik, eskolak berdintasunean oinarritutako sozializazioa bermatu behar du eta pertsonen garapen integrala ahalbidetu, identitate guztiak errespetatuz. Geografia eta Historia irakasgaien hezkidetzarekin loturiko gaiak landuko ditugu hainbat unitate didaktikoetan, batez ere Historiarekin loturiko gaietan.

Bestetik, ikasleen jarrera ere erabat erlazinaturik dago Hezkidetza proiektuak bultzatzen dituen ildoekin: ikasleen arteko elkarbizitza osasuntsua, errespetua... beraz, ildo hauek kontutan hartuko dira ikasleak ebaluatzeko orduan.

AGENDA 2030

Agenda 2030 proiektua ikastetxean gauzatzen ari dela kontutan harturik, proiektuaren eta irakasgaiaren arteko zubi-lanak egingo dira. Ikas-egoera guztiek izango dute nolabaiteko lotura proiektu honek bultzatzen dituen helburuekin; munduko gizartearen arteko desberdintasunak murriztea edo desagertzea, bai elikaduran, osasun eta ongizatean; pobreziarekin amaitzea, baita genero desberdintasunarekin; jasangarritasuna bultzatzea eta abar.

HNP

Hizkuntza Normalkuntza Planeko irizpideak jarraituko dira programazio hau gauzatzerakoan. Hala izanik, euskararen erabilera bultzatu eta ebaluatuko da irakasgai honetan, bai jarrera ebaluatzerakoan, zein lanak edota ahozko aurkezpenak gauzatzerako orduan.

IRAKURKETA PLANA

Irakurketa Plana deritzon ekimenaren helburua gure ikasleen irakurmena hobetzea eta irakurlezaletasuna bultzatzea da. Bide honetan bat egiteko asmoz, gure irakasgaiaren bidez helburu honekin loturiko jarduera desberdinak proposatuko dira. Horretarako, testu desberdinen irakurketa bideratuko da ikasgelan, eta jarduera anitzak proposatuko dira. Irakurketa partekatuaren teknikaren bidez testuak irakurri eta ulertzea, testu desberdinen ideia nagusiak azpimarratzea, irakurritako testu baten inguruan iritzia ematea, testu idatzi batetik abiatuz analisia edo iruzkina burutzea...